



2006ko LATORRIZKO GEHITU SARIA

GEHITU Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarteak –Eusko Jaurlaritzak herri-onurako erakunde izendatuta daukanak–, maiatzaren 17an urtero ospatzen den Homofobiaren aurkako nazioarteko eguneko ekitaldien barruan, bere homofobiagatik nabarmendu diren ondoko pertsonak edo erakundeak hautagai egokitzat jo ditu LATORRIZKO GEHITU aipamenak jasotzeko:

LAURA ALABAU MARTÍ, FRANCISCO JAVIER GARCÍA ETA MARÍA LUIS MIRANDA. DÉNIAKO (ALACANT), TELDEKO (KANARIA HANDIA) ETA BURGOSKO ERREGISTRO ZIBILEZ ARDURATZEN DIREN EPAILEAK DIRA, hurrenez hurren. Eta hirurek gay eta lesbiana bikote batzuen ezkontza-espeditenteak geldiarazi dituzte jurisprudentziaren aurkako prozedurak erabiliz eta fiskalek emandako diktamenen aurka eginez. Izan ere, legez kontrako inkonstituzionalitate-arrazoiak argudiatu dituzte Auzitegi Konstituzionalean. Joera homosexuala duten pertsonen arteko ezkontzak ontzat jotzen dituen Kode Zibilaren erreformaren aurka egiteko, goi-mailako magistratura honetara jotzea inkonstituzionalitate-arrazoiak argudiatuz ez dela bidezkoa aldarrikatu du goi-mailako erakunde horrek, Erregistro Zibilaz arduratzen diren epaileek ez baitute inolako zeregin juridikzionalik mota horretako ezkontza-espeditenteetan (areago, beste herrialde batzuetan, Frantzian kasu, Justizia Ministerioko funtzionarioek ematen dute ezkontzeko baimena). Aipatutako epaileek bazekiten guztiori, jakin beharra daukaten oinarritzko ezaupide juridikoetako batzuk dira eta; gainera, fiskalen diktamena mahai ganean zeukaten. Hala eta guztiz ere, inkonstituzionalitate-arrazoiak aurkezten tematu ziren, asmo bakarrarekin: pertsona interesatuei funtsezko eskubide batez baliatzen eragozte. Izan ere, aipatutako arrazoiak aurkezteak ondorio hori dakar, legea aplikatu behar duen prozedura geldiaraztea, eta hori izan da inkonstituzionalitate-arrazoiak aurkezteko izan duten arrazoi bakarra. Baina, homosexualak elkarrekin ezkontzeko eskubidea Gorte Nagusiek onetsi dute. Beraz, iragar zitekeenez, Auzitegi Konstituzionalak ez ditu onartu aipatutako epaileek

aurkeztu dituzten inkonstituzionalitate-arrazoiak, eta asmo horrekin aurkeztu zituzten argudioak aztertzea ere ez da beharrezkoa izan, kasu honetan inkonstituzionalitate-arrazoiak aurkezteko zilegitasunik ez zutelako.

Guztiagatik, garbi dago Laura Alabau Martí, Francisco Javier García eta María Luis Miranda epaileek euren aurreiritzi ideologikoak euren betebehar profesionalen aurretik jarri zituztela eta legearen aurka jokatu zutela Parlamentuak onetsitako legea aplikatua izan ez zedin eta sexu-joera jakina duten herritar batzuen arteko ezkontza-eskubidea eragotzi nahirik, Estatu demokratikoaren funtsezko eskubideak urratuz, horren ondorioz.